

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Behin behineko onespena ematea 2021eko ekitaldian kreditu gehigarri bidez aurrekontua aldatzeko espedienteari

Iruraiz-Gaunako udalbatzak, 2021eko urriaren 5eko bilkura berezian, behin-behineko onespena eman zion 2021eko ekitaldiko aurrekontuan kreditu gehigarri bidez 4/2021 kreditu aldaketa egiteko espedienteari:

Kreditu gehigarria, honako aurrekontu aplikazioetarako:

312.623.02

Laguntza zerbitzuak – Inbertsioak makinetan: 41.140 euro

Kreditu gehigarria gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin positiboaren kontura finantzatuta dago.

Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren 38/2013 Foru Arauak ezarritakoari jarraituz, aurrekontu aldaketaren espediente osoa helarazi zaio Arabako Foru Aldundiko Toki Erakundeen Sailari, eta hark ez du inolako eragozpenik adierazi aurreikusitako hogeita hamar egunetan.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen testu bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 169. artikuluan xedatutakoaz baliatuz, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliiodunez, eta udalbatzari aurkeztutako erreklamazioak eta iradokizunak onartuko dira epe horretan.

Jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, espediente behin betiko onetsizat joko da.

Azilu, 2021eko azaroaren 8a

Alkatea

SUSANA DÍAZ DE ARCAYA CUBILLO